

1. BALIO PROPOSAMENA

Balio Kualitatiboa

Gure enpresaren balio-proposamena bezeroei kalitate handiko produktuak prezio justu eta lehiakorretan eskaintzean oinarritzen da. Helburua da bezeroek konfiantzaz eta lasaitasunez bizikleta alokatzea da, jakinda jasoko duten produktua fidagarria, iraunkorra eta kalitate onekoa izango dela.

Horrez gain, bezeroen eguneroko arazoak konpontzen laguntzen dugu. Bestela garestiak izango liratekeen produktuak eta zerbitzuak eskuragarriago egiten ditugu, eta irtenbide praktiko eta eraginkorrak eskaintzen ditugu.

Gure plataformak alokatzeko metodo azkarra, eroso eta erraza bermatzen du, bezeroen beharrak modu arin eta eraginkorrean asetzeko.

Gure zerbitzuaren ardatz nagusietako bat bezeroei eskaintzen diegun arreta pertsonalizatua da. Gure taldeak erabiltzaile bakoitzaren behar, arazo eta galderetara berehala eta modu egokian erantzuteko prest egongo da. Harreman zuzena, gertukoa eta eraginkorra bermatuz, erabiltzailearen esperientzia hobetu, konfiantza handitu eta bezeroaren leialtasuna indartzen dugu.

Balio Kuantitatiboa

Gure enpresaren bereizgarri nagusia da kalitatearekiko konpromiso irmoa, eta prezio eskuragarri eta lehiakorrak uztartzea. Elementu horiek konbinatuta, gure bezeroek esperientzia positibo, fidagarri eta koherentea jasotzen dute beti, eta horrek merkatuan gure posizioa sendoagoa eta nabarmenagoa egiten du.

